

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **235/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko martxoaren 11koa, gobernantza estatistikorako Europako Aholku Komitea sortzen duena**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DECISIÓN N° 235/2008/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, por la que se crea el Comité consultivo europeo para la gobernanza estadística*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 73 de 15/03/2008)

**235/2008/EE ERABAKIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA,**

2008ko martxoaren 11koa,

**gobernantza estatistikorako Europako Aholku Komitea sortzen duena
(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO
KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatua eta, bereziki, haren 285.
artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren² 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki,

Honako hauek hartu dira kontuan:

(1) Nazioko eta erkidegoko estatistika-agintarien independentziari, segurtasunari eta erantzukizunari buruz Europa osorako arauak ezartzeko beharra dagoela ikusirik, Kontseiluaren 89/382/EEE Euratom Erabakiak³ sortutako Estatistika Programaren Komiteak Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodea (aurrerantzean Jardunbide Egokien Kodea) berretsi zuen, aho batez, 2005eko otsailaren 24an egindako bileran. Kode hori 2005eko maiatzaren 25eko Batzordearen Gomendioan aurkeztu zen, estatu kideen eta erkidegoko estatistika-agintarien independentziari, segurtasunari eta erantzukizunari buruzko bertsioan.

(2) Jardunbide Egokien Kodeak bi helburu ditu: batetik, estatistika-agintariekiko konfiantza handitzea eta, bestetik, egiten dituzten estatistiken kalitatea sendotzea. Lehen xederako, erakunde eta antolamendu mailako xedapenak proposatu ditu.

(3) 2005eko maiatzaren 25ean, estatu kideen eta erkidegoaren estatistika-agintarien independentziari, segurtasunari eta erantzukizunari buruzko Jakinarazpena igorri zien Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Bertan, kanpoko aholkularitza-erakunde bat baliatzearen onura aitortzen zuen,

erakunde horrek zeregin aktiboa izan bailezake Europako estatistika-sistemak Jardunbide egokien kodea nola aplikatzen duen gainbegiratzeko. 2005eko maiatzaren 25eko Gomendioan, kanpoko aholkularitza-erakunde hori sortzeko proposamena aztertzeo asmoa zuela adierazi zuen.

(4) 2005eko azaroaren 8an, hauxe erabaki zuen Kontseiluak: goi mailako aholkularitza-erakunde berri batek Batzordearen —Eurostat— independentzia, segurtasuna eta erantzukizuna areagotuko lituzkeela, Europako estatistika-sisteman Jardunbide egokien Kodea homologoek ebaluatzeari dagokionez. Erakunde hori pertsona independente gutxi batzuek osatuta egotea eta kideok eskuduntzen arabera izendatzea gomendatu zuen Kontseiluak.

(5) Erakunde horretako kideek hainbat gai osagarriren inguruko prestakuntza eta eskarmentua izan behar dute. Hortaz, adibidez, irakaskuntzaren alorreko adituak eta estatistikaren arloan nazioan eta nazioartean esperientzia dutenak izango ditu partaide.

(6) Aholkularitza-erakunde horrek ebaluazio-lan bat prestatu beharko du Batzordearentzat —Eurostat—, Jardunbide egokien kodearen aplikazioari buruz, hain zuzen ere, estatistika-institutu nazionaletako homologoek egiten dutenaren parekoa.

(7) Bidezkoa denean, Jardunbide egokien kodeari buruzko elkarrizketa sustatuko da estatu kideetako erakunde interesdunekin, Estatistika Programaren Komitearekin eta Europako Estatistikako Aholku Komitearekin —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren⁴ 234/2008/EE Erabakiari jarraiki sortu zen—.

(8) Horrela, bada, aholkularitza-komitea sortu eta haren zereginak eta egitura zehaztu beharra dago, Banku Zentralen Europako Sistemaren eta Europako Banku Zentralaren estatutuen gaineko protokoloan xedatutakoari kalterik egin gabe.

ERABAKI DUTE:

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko urriaren 24koa —ez da, oraindik, Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko otsailaren 14koa.

³ L 181 EO, 1989-06-28koa, 47. or.

⁴ Ikus Egunkari Ofizial honetako 13. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. artikulua

Aholkularitza Komitea

Estatistika-gobernantzarako Europako Aholku Komitea (hemendik aurrera, Komitea) sortu da. Europako estatistika-sistema kontrolatzea izango da haren zeregina, Europako estatistiketan Jardunbide egokien kodea —hemendik aurrera, Jardunbide egokien kodea— aplikatzeari dagokionez, alegia.

2. artikulua

Funtzioak

1. Hona hemen Komite horrek izango dituen eginkizunak:

a) Urtean behin txosten bat igortzea Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, Batzordeak (Eurostatek) Jardunbide egokien kodea nola aplikatu duen jakinarazteko. Horiei bidali aurretik, baina, Batzordeari helaraziko dio.

b) Urteko txosten horretan, halaber, Jardunbide egokien kodea Europako estatistika-sisteman, oro har, nola aplikatzen den ebaluatuko da.

c) Batzordeari aholkularitza ematea, Batzordeari (Eurostat) eta Europako estatistika-sistemari, oro har, dagokienez, Jardunbide egokien kodea aplikatzeko neurri egokiei buruz.

d) Batzordea (Eurostat) aholkatzea, Jardunbide egokien kodea erabiltzaileei eta datu-hornitzaileei jakinarazteko moduz.

e) Batzordea (Eurostat) eta Estatistika Programaren Komitea aholkatzea, Jardunbide egokien kodea eguneratzearen inguruan.

2. Komiteak Batzordea aholkatu ahal izango du, eta erabiltzaileek Europako estatistiketan duten konfiantzari buruz egiten dizkion galderei erantzungo die, 1. paragrafoan adierazi diren funtzioak betez.

3. artikulua

Komitearen osaera

1. Zazpi kidek osatuko dute, eta lehendakaria izango da horietako bat. Komiteko kideek aske jokatuko dute. Batzordea (Eurostat) behatzaile gisa egongo da ordezkatuta.

2. Komiteko kideak estatistikaren alorrean eskumen nabarmenak dituzten adituen artean hautatuko dira. Beren kabuz beteko dituzte

emandako zereginak, eta prestakuntza mota ugari eta eskarmentu osagarriak dituztenak hobetsiko dira.

3. Kontseiluak izendatuko du Komiteko lehendakaria, eta Europako Parlamentuak onetsi egingo du, Batzordeari kontsulta egin ondoren.

Presidenteak ezin izango du kide aktibo izan ez estatistika-institutu nazionaletan ez Batzordean, eta azken bi urteetan kargu horretan aritu gabea izan behar du.

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Komiteko hiruna kide izendatuko dituzte, Batzordeari kontsultatu ostean.

4. Lehendakariaren eta Komiteko kideen agintaldia hiru urtekoa izango da, eta behin bakarrik berritu daiteke.

5. Kide batek dimisioa aurkeztuz gero agintaldia amaitu baino lehen, beste kide bat izendatuko da, artikuluko honetan xedatutakoari jarraiki, eta agintaldi osoa beteko du.

4. artikulua

Prozedura

1. Komiteak berak erabakiko du bere barne-araudia, eta argitaratu egingo da.

2.2. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz zatian aipatu den Komitearen urteko txostena Europako Parlamentuari eta Kontseiluari aurkeztu ostean argitaratuko da. Bestalde, ondorioen bat, ondorio zatiren bat edo lan-dokumenturen bat plazaratzea erabaki dezake Komiteak, baldin eta aurrez Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari (Eurostati) eta dagokion beste edozein erakunderi jakinarazi badio, erantzuna emateko aukerarekin.

3. Tratatuaren 287. artikuluan xedatutakoa alde batera utzi gabe, Komiteko kideek ezin izango dute Komitearen lanen bidez lortutako informazioa zabaltzea, baldin eta Batzordeak jakinarazten badie informazio hori konfidentziala dela eta arrazoiz dela konfidentziala, edo txosten-eskaera bati edo egindako galdera bati erantzuteak informazio konfidentzial hori zabaltzea dakarrela.

4. Komiteak Batzordeak hornitutako idazkaria izango du lagun, baina bere kabuz jardungo du. Batzordeak, gainera, Komitearekin hitz egin ostean izendatuko du idazkaria. Idazkari horrek Komitearen jarraibideak bete beharko ditu.

5. Komiteko gastuak Batzordearen aurrekontu-aurreikuspenetan sartuko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. artikulua

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean Erabaki hau.

5. artikulua

Komitearen lana eta eraginkortasuna sortu eta hiru urtera ebaluatuko da.

Estrasburgon egin, 2008ko martxoaren 11n.

Europako Parlamentuaren izenean Kontseiluaren izenean

Lehendakaria
H.-G. PÖTTERING

Lehendakaria
J. LENAR